## OLERKIA

EUSKERAZAINTZA
GIZARTEARENTZAT
ONURAKOR

Madrid'eko Aldizkari Nagusian (B. O. E.), 1981'eko zezeillaren 21'ean, Laterri-Barruko zaingoaren aginduz, EUSKERAZAINTZA Euskeraren Erri-Akademia, legez len ezarria, 32.921 zenkakiaz ezagutua, ministroen batzarraren erabagiz, gizartearentzat onurakor lez agertzen da eta bere araudia be an irakurri leike.

2'garren arauan, F) zatian auxe diño: «Euskerea irakasteko ikastaroak eratzen eta agiridun euskera-irakasleak gertatzen lagunduko dau eta azterpena egin-ondoren bearrezkoak diran agiriak eta baiezpenak emongo ditu».

ZORIONAK «EUSKERAZAINTZA»RI1

ZER'ek

# G IZA-AR LOAK

*Umearo ba-doa*
*ta min latza asmetan dut,*
*zirika enegan;*
*zerbait arrigarria,*
*gu zapalduta gagoz*
*also erpapean...*

*Berez maite nun lurra,*
*seme saltzailleen bidez*
*ezpaitan egoan;*
*atzerriko ezpata*
*ta etzeko aiztoa*
*ebiltzan jokoan.*

*Zonbait euskaldun jator*
*itza etsi ezinik,*
*euskaldun egia;*
*aalez ikusten nitun*
*erria zaindu nairik;*
*geure eskubidia.*

*Saldukeria baltzak*
*guzurrez joten nindun*
*biotz barrenian;*
*amaren maitasuna,*
*zelan saldu leiteke*
*zabarkeripian...*

*Zure lur ederrak,*
*izkuntz berezia dau,*
*Aberri maitia;*
*loituta ikusten nun,*
*lotsaz beterik egon*
*euskaldun egia.*

*Ene euskalduntasuna...!*
*guzurra ikusten zendun*
*gizon paltsuetan;*
*egia artzen zendun*
*A berriaren garraz*
*gizon zuzenetan.*

PAULIN